

# BALIO PROPOSAMENA



Gaur egun, normalean, mugikorra edo jendearekin konektatzeko gailu elektroniko bat izaten dugu eskura. Pertsonaren bat ezagutzen duzu oraindik sakelako telefonorik ez duenak? Segur aski, inor ez, gaur egun menpekotasun eta premia bihurtu baita; kalera mugikorrik gabe ateratzen bazara, ez zara seguro sentitzen, inkomunikatuta baizik; egun oso bat mugikorrari begiratu gabe pasatzen baduzu, hau hartzekoan, hainbeste mezu eta jakinarazpen ikusterakoan, zerbait garrantzitsua galdu duzula edo zerbait pasa dela pentsatzen duzu. Horregatik da hain garrantzitsua beti mugikorra kargatuta eramatea leku guztietara, inoiz ez dakizu zer gerta daitekeen.

Baina ziur nago askotan bateria amaitu zaizula eta ez zenekiela zer egin. Ez zeneraman kargagailurik poltsan edo poltsikoan, kablea korapilatu egiten delako eta astuna delako "badaezpada" batentzako eraman behar izatea. Eskaintzen dugun produktua deserosotasun eta kezka horien guztien irtenbidea da. Kargagailu erraza, eraginkorra eta, batez ere, garraiatzeko eroso izatea nahi baduzu, leku egokian zaude.

Gure produktua, Kable doigarria deiturikoa, mugikorra kargatzeko balio duen gailu edo sistema bat da. Merkatuko produktu berritzaileena eta eskusiboena. Izenak esaten duen bezala, mugikorra kargatzeko erabiliko den kable ezberdin bat da. Honen funtzioa mugikorra kargatzea izango da, beste kargadore batzuen modura, baina, besteengandik bereizten duena kablea entxufearen barruan sartuta dagoela da.



Kable honek, eroso eta erabilgarria izateaz gain, birziklapena sustatzen du; izan ere, gure enpresak berrerabilitako kableez egindako produktu bat eskaintzen du, gure bezeroek aurretik dohaintzan emandakoak.

Produktu hau Media Markt dendan eta gure webgunean ([www.electronicbum.com](http://www.electronicbum.com)) salgai egongo da



Gure webgunean kontu bat sortuz, kode bat lortuko duzu, Media Markt dendan jasoko duzun txartel bat lortzeko aukera ematen dizuna. Txartel honen funtzio nagusia puntu kopuru bat biltzea izango da; bezeroak bilketa-puntu batean emandako kargagailu kopuruaren arabera. Horrek gure enpresak eskainitako produktuak prezio hobean lortzeko aukera erraztuko dio, puntu horiek deskontu kopuru desberdinak eskaintzen baitituzte. Modu honetan, gizarte erantzukizuna sustatuko da.

Printzipioz, gure produktua eredu estandarra denez, entxufe unibertsala duten gailuak soilik kargatzeko gai da. Horregatik, gure enpresak egokigailuen pack bat ere badu, bezeroari gailu mugikorreko edozein modelotan gure kargagailua erabiltzeko aukera ematen diona.



Berrikuntza hau teknologiak erabiltzen dituzten pertsonentzat diseinatuta dago, baina bereziki, mugikorra erabiltzen dutenei (edozein markarentzat balio du).

Produktu honen bidez, erosotasuna lortuko duzu, adibidez, bidaian zoazenean, denok dakigu kablea gauza guztiekin korapilatzen dela (argazkian ikusten dugun bezala), baina berrikuntza honen bidez, hau aldatu daiteke erasotasun gehiago lortzen. Honetaz gain, ez duzu hainbesteko denbora galduko, poltsatik ateratzeko errezagoa delako.

